



Dirección- Helbidea: C/ Tajonar 14 Aula 31
(CAP de Pamplona.)
Tfnos 948 247 194 / 653 957 559
apsnavarra@gmail.com
www.apsnavarra.com

ZERGATIK APSK EZ DU CCOO ETA UGTK DEITUTAKO KONZENTRAZIOETAN PARTE HARTZEN

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Elkartea Espainiako Gobernuak hartutako neurrien aurka dago. Batetik zilegi ez direlako, eta bestetik, zerbitzu publikoen langileen gainean bere kudeaketa tamalgarria eta diru xahutzea jartzen duelako. Langile publikoak zigortuta gaude egoera horren errudunak izango bagina bezala, baina gure ustez, hartutako neurri horiek propagandistak eta populistak baino ez dira.

Hala ere, APS ez dago itxurak egiten ibiltzeko prest. CCOO eta UGT Zapateroaren ezinbesteko laguntzaileak izan dira, Nafarroan izan diren bezala (ez dugu ahaztu behar biei eman zitzaizela Nafar Gobernuaren Urrezko Domina).

APStik, haserre-itxura egin beharrean, argi utzi nahi dugu benetan suminduta gaudela, bai Gobernu Zentralarekin eta bai autonomikoarekin. Baina konstruktiboak izatera, gure Foru-Gobernuari eta, zergatik ez, Espainiako gobernuari ere, ideia batzuk emango dizkiogu dirua funtzionario (kontuan izan irakasleok dagokigun mailan gutxien kobratzen dugunak garela) eta pentsiodunen kontura lortu beharrean beste zenbait tokietatik aurrezteko. Are gehiago, nahi izanez gero krisiaren aurka lasai asko erabil ditzakete, guk ez diegula inolako egile-eskubiderik eskatuko-eta:

1.) Hezkuntza-itunak, hau da, ikastetxe pribatuei ematen zaien dirulaguntza publikoak, bertan behera uztea.



Dirección- Helbidea: C/ Tajonar 14 Aula 31
(CAP de Pamplona.)
Tfnos 948 247 194 / 653 957 559
apsnavarra@gmail.com
www.apsnavarra.com

- 2.) Administrazio-sektore guztietako bulegoetan hain ugariak diren “*konfiantza karguak*” ezabatzea. Izan ere, gizarteak ez du kargu horiek egiten duten lanaren berri.
- 3.) Gure politikariek euren soldatak murriztea, baina baita euren osagarriak eta dietak ere, eta, aldi berean lan publikoa eta pribatua izatea eragozte, banketxetako administrazio-aholkulariak kasu.
- 4.) Bankuek altxor publikoak utzitako dirua itzultzea.
- 5.) Sindikatuei emandako diru-laguntzak kentzea edo nabarmen beheratzea.
- 6.) Ezertarako bailo ez duten ministeritzak eta eraginik gabeko lehendakariordetzak ezabatzea.
- 7.) Zerga-ikuskapena zorroztea iruzur, kapital-ihes eta finantza-ustelkeriarekin amaitzeko.
- 8.) Gobernatzeko gai ez direnak, arduraz jokatzeko eta kargua uztea. Hiritarrok zinez eskertuko diegu.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 19an.